

ERRETIRO PARTZIALA ETA TXANDAKAKO KONTRATUA ABIAN JARTZEKO OINARRIAK HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILEKO LAN-LEGEPEKO IRAKASLEEN ETA HEZKUNTZA-PERTSONALAREN KOLEKTIBOAN.

1.- HELBURUA

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak txandakako kontratuak formalizatuko ditu Hezkuntza Saileko lan-legepeko pertsonalaren hitzarmen kolektiboa aplikatu ahal zaien eta erretiro partziala hartu duten lan-legepeko langileak ordezkatzeko.

2.- BALDINTZAK

Enpresa eta erretiro partziala hartzen duten langileak ados jarriko dira erretiro partziala eta txandakako kontratua gauzatuko diren baldintzetan. Dena den, erretiro partziala eskatzen duen langileak txandakako kontratua erreleboko langileari eman aurretik uko egin ahal izango dio bere eskaerari.

Erretiro partziala hartzen duen langileak, gutxienez, 60 urte izan beharko ditu eta kotizaziopeko pentsioa eragiteko eskatzen diren baldintza orokorrak bete beharko ditu (oro har, 15 urte kotizatu izan behar dira eta haietako 2 erretiroa hartu baino lehenagoko azken 15 urteen barruan). Interesatuak arau erregulatzailerari eta lan-bizitzari buruzko txostena, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak emandakoa, aurkeztu beharko du, erretiro partzialaren eskubidea duen zehazteko eta haren kotizaziopeko pentsioa kalkulatzeko. Erretiro-pentsioa Gizarte Segurantzako Erakunde kudeatzailearen aurrean eskatzearen ondorioetarako, Administrazioak txandakako kontratuaren kopia emango dio langileari.

3.- LANALDIAREN MURRIZKETA

Erretiro partziala hartzen duen langileak % 85eko lanaldiaren murrizketa bat eskatu ahal izango du. Errelebolariaren dedikazioa % 100ekoa izango da.

Egoera hasi aurretik zehaztuko da errelebolariak eta ordezkatzeko langileak nola bete beharko duten lanaldia. Dena den, ondorengoak izango dira ordezkatzeko langileak eman dituen zerbitzuak kontatzeko funtsezko irizpideak, salbuespenak kenduta: urteko lanaldi osoa denbora-aldi batean metatu izana, zerbitzuak haren ikastetxean eman izana eta dagozkion lanak bete izana. Batzorde Paritarioak egingo du lanaldia betetzen den kontrolatzeko ezartzen diren sistemen jarraipena.

4.- EPEAK

Urtero, ikasturtearen hasieran, irailaren 5etik abenduaren 31ra bitartean, erretiro partzialak eta txandakako kontratuak formalizatuko dira. Irailaren 1ean 60 urte, gutxienez, dituztenek eta abenduaren 31 baino lehenago 60 urte betetzen dituztenek izango dute erretiro partziala eskatzeko eskubidea.



5.- IRAUPENA

Txandakako kontratuak erretiroa partzialak iraun bitartean iraungo du eta, betiere, iraungiko da erretiratu partzialak 65 urte betetzen dituen unean.

6.- IZANGAIAK

Ordezkapenak egiteko kolektiboaren araudiak zehaztuko du txandakako kontratuak betetzeko sistema. Ikasturtearen hasierako esleipenean aukeratu ahal izango dira abenduaren 31 baino lehenago egiten diren txandakako kontratuak.

7.- ORDAINSARIAK

Lan egiten den kategoriarentzat hitzarmen kolektiboan aitortzen diren ordainsarien zati proportzionala izango dira Administrazioak erretiratu partzialari eta errelebolariari ordainduko dizkien ordainsariak, urte bakoitzean aplikatzen diren soldata-gehikuntzekin. Urteko ordainsaria hamabi hilabetetan eta bi aparteko ordainketatan hainbanatuko da. Erretiroaren saria ondoren esan bezala ordainduko zaio, dagokionari: % 85 erretiro partziala hartzen den unean eta gainontzeko % 15 65 urte betetzen direnean.

8.- OINARRI HAUEN GARAPEN ETA INTERPRETAZIOA.

Aplikatu beharreko hitzarmen kolektiborako Batzorde Paritarioak interpretatuko ditu oinarri hauek, baita bere unean onartu eta garatu ahal izango direnak ere.

Vitoria Gasteiz, 2005eko maiatzaren 13a